

“KOSMODISEAKO EDIZIO HONETAN LANDU BEHARREKO GAIK OSO INTERESGARRIAK DIRA”



Xabier Maiza | SAN BENITO IKASTOLA (<http://www.sanbenitoikastola.net/web/default.php>)

DBH

Xabier Maiza, Lazkaoko San Benito Ikastolako irakaslea, Kosmodisea 2009-2010 edizioko Fono etapan, DBH kategorian, puntuazio altuena lortu duen "ParisRouge" taldearen arduraduna da.

Programan parte hartzen ari diren irakasleak eta ikasleek adierazi dutenez, sailkapenaren berri izan zutenean ezustekoa oso atsegina izan zen, beste talde batzuen lanak ezagutzen baitzituzten eta horietako askok kalitate altua zutela bai baitzekiten. Gainera, emaitza onak lortu izanak lan-ildo berean jarraitzera animatzen dituztela eta, gaiari zein garatzeko moduari dagokionez, hautaketa egokia egin zutela baieztatzen duela adierazi dute.

"ParisRouge" taldeko ikasleek Fono Planetari dagokion fitxategia grabatzerakoan "*barreari eustea zaila egin zitzaie*la" aitortu dute baina behin eta berriz errepikatu osten, nahi zituzten emaitzak lortu zituztela. Xabier

Maizak dio ez dutela arazo berezirik izan lana egiteko, *"Audacity programa jada ezagutzen baikenuen. Gainerakoa, bila genbiltzana lortu arte zenbait aldiz saiatzea besterik ez da izan"*.

2009-2010 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

- *Interesgarriena landu beharreko gaiak dira, izan ohi ditugun zenbait gai latzenen inguruan hausnarketa egin eta iritzia emateko aukera eskaintzen baitigute.*

Eta zeintzuk dira parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

- *Agian zailena hastea izan zen. Ez genekien nondik hasi, ez eta zer egin ere. Hainbeste gauza kontatu nahi genuenez, zaila izan zen proiektua hastea. Bestalde, talde-lana inoiz ez da erraza. Izaera desberdinak, pentsatzeko modu desberdinak daude eta baita lan egiteko modu desberdinak ere. Proiektuarekiko inplikazio-maila desberdinen gaia eta garapenaren inguruan sortzen diren eztabaidak ere hor daude. Hala ere, arazo teknikoak ez dira garrantzitsuak izan.*